



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.-----**

ZIURTATZEN DUT:**CERTIFICO:**

Bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita bostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veinticinco de octubre dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita bostean, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del veinticinco de octubre de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.

Ez da bertaratu Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean: Iñaki Larrañaga Etxabe jauna.

No asiste; Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Iñaki Larrañaga Etxabe.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

LEHENENGOA.- 2018KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko irailaren hogeita zazpian egin zen bilerari dagokion akta.

BIGARRENA.- 2019 URTERAKO AUTO-TAXIEN TARIFAK ONARTZEA.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

“2004ko azaroaren 26an, Udal Batzarraren Osoko Bilkurak eskualde mailan auto-taxi zerbitzua zonaka banatzea onartu zuen, eta ildo horretatik, bateratutako tarifen araubidea ezartzeko erabakia hartu zuen. Aipatzekoa da inguru hau Debabarrenekoa dela.

Halaber, aipatzekoa da harrezkero Elgoibarko auto-taxi zerbitzuari dagozkion tarifak onartuz joan direla.

Bestalde, Taxien Gipuzkoako Elkarteak (AGITAX) auto-taxi zerbitzuaren 2019 urteko tarifak onartzeko aurkeztu duen proposamena ere aztertu da. Bertan, Udal honek taxientzako onartutako azken tarifa, %2,3 gehitzea eskatzen da.

Ildo horretatik, Herri Barruko eta Herriz Kanpoko Garraio Publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3 eta 17.6 artikuluek diotenaren arabera, Udalari dagokio tarifak ezartzea.

PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 27 DE SEPTIEMBRE DE 2018.-

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veintisiete de septiembre de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

SEGUNDO.- APROBAR LAS TARIFAS DE AUTO-TAXI- PARA EL AÑO 2019.-

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Resultando que con fecha de 26 de noviembre de 2004 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la zonificación del servicio de auto-taxi a nivel comarcal, siendo ésta la zona del Bajo Deba y estableciendo un régimen de tarifas unitario.

Resultando que a partir de entonces se vienen aprobando las tarifas de auto-taxi de Elgoibar.

Vista la propuesta de aprobación de las tarifas del servicio de auto-taxi presentada por la Asociación Gipuzkoana del Taxi (AGITAX) para el año 2019, en la que se solicita incrementar última tarifa de taxi aprobada por este Ayuntamiento, en un 2,3%.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3.3 y 17.6 de la Ley de Parlamento Vasco 2/2000, de 29 de junio sobre el Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo, corresponde al Ayuntamiento la fijación de las tarifas.



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Aurrekoa ikusirik, Batzorde honek ondoko **ERABAKIAK** har ditzala proposatzen dio Udalbatzarraren Osoko Bilkurari:

A la vista de lo que antecede, la Comisión propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Lehenengoa.- 2019 urterako Elgoibarko herri barruko garraiorako auto-taxien tarifak onartzea. Hona hemen tarifa horiek:

Primero.- Aprobar las nuevas tarifas de los transportes urbano de auto-taxi en Elgoibar para el ejercicio 2019, y que son las siguientes:

HERRI BARRUKO TARIFAK - 2019 TARIFAS URBANA - 2019			
<u>PROPOSAMENA</u>	<u>GUTXIENeko TARIFA</u>	<u>EGINDAKO KILOMETROA</u>	<u>ITXARON ORDUA</u>
PROPUESTA	TARIFA MÍNIMA	KILOMETRO RECORRIDO	HORA DE ESPERA
<u>1. TARIFA*</u>	5,2127	1,3053	17,4469
<u>2. TARIFA**</u>	5,6760	1,4447	18,3458

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

La Tarifa Míniña incluye 1,5 Km. de recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da, 07:00etatik 22:00etara.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hau egunero ezarriko da, 22:00etatik 07:00etara. Halaber, 2. tarifa hau autonomia erkidegoko eta Udal mailako araudietan finkatutako jaiegunetan ezarriko da, 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan, eta abenduaren 24an eta 31n ere.

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa 2 desde las 07:00 a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 y 31 de diciembre.

Bigarrena.- Debe gesaren bidez, espedientea Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Ordezkaritzara bidaltzea, aipatutako tarifak errebisatzeko espedientearen izapidetzen hasteko.

Segundo.- Remitir el expediente a la Delegación de Comercio del Gobierno Vasco, a través de Debe gesa, a fin de que dé curso a la tramitación del expediente de revisión de tarifas de referencia.

Hirugarrena.- Taxilarien Gipuzkoako Elkarteari (Agitax) eta Elgoibarko auto-taxien lizentzia duten jabeei erabaki honen berri ematea.”

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a la Asociación Gipuzkoana del Taxi (Agitax) y a los titulares de licencia de auto-taxi de Elgoibar.”



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**HIRUGARRENA.- AITA AGIRRE
ERAIKINA ERABERRITZEKO OBREN
EXEKUZIO EPEA LUZATZEKO
ONARPENA EMATEA.-**

Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu eta Erabaki bihurtu da:

“2017ko ekainaren 15ean, Udalaren eta IZA Obras y Promociones SA enpresaren artean Aita Agirre eraikina eraberritzeko obrak exekutatzeko kontratua sinatu zen.

2017ko uztailaren 14an horri zegokion zuinketa akta sinatu zen.

Kontratuan aurreikusi zen exekuzio epea 14 hilabetekoa zen; hala ere, kontratuan bertan aurreikusten zen epe hori bi astez etetea, 2017ko abuztuan, eta beste bi astez, 2018ko abuztuan; izan ere San Bartolome jaietan Aita Agirre plazan instalatzen diren barraken ondorioz, obrak geldiarazi egin behar ziren epe horretarako. Hortaz, obra bukatzeko aurreikusi den eguna 2018ko urriaren 14a da.

2018ko urriaren 4an, IZA Obras y Promociones SA enpresak idatzi bat aurkeztu zion Udalari kontratuaren exekuzio epea bi hilabete luzatzeko. Laburbildurik, eskaria hainbat gertakaritan oinarritzen da. Gertakari horien ondorioz, luzatu egin zen beharrezkoa zen exekuzio denbora; izan ere, 2018ko urtarrilaren 23an erori egin zen atzealdeko fatxadako hormaren zati bat.

2018ko urriaren 5ean, Jovino Martínez Sierrak, eraberritze obraren Obra Zuzendariak, txosten bat egin zuen IZA Obras y Promociones SA enpresaren idatzian adierazitako arazoak

**TERCERO.- APROBACIÓN DE LA
AMPLIACIÓN DEL PLAZO DE
EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE
REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO AITA**

AGIRRE.- Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

“El 15 de junio de 2017 se suscribió entre el Ayuntamiento e IZA Obras y Promociones, SA, el contrato para la ejecución de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre.

En fecha 14 de julio de 2017 se suscribió el acta de replanteo correspondiente.

El plazo de ejecución previsto en el contrato es de 14 meses, si bien en el propio contrato se contempla la suspensión del plazo por dos semanas en agosto de 2017 y otras dos semanas en agosto de 2018, ya que con ocasión de las fiestas de San Bartolome y la instalación de barracas en la plaza Aita Agirre, las obras se paralizarían por dicho espacio de tiempo. Por tanto, la fecha prevista para el fin de la obra es el 14 de octubre de 2018.

El 4 de octubre de 2018, IZA Obras y Promociones, SA presentó ante el Ayuntamiento un escrito solicitando la ampliación del plazo de ejecución del contrato en dos meses. La solicitud se fundamenta, sucintamente, en diferentes acontecimientos que supusieron un incremento del tiempo de ejecución necesario, siendo la causa principal el derrumbe de parte del muro de fachada trasero ocurrido el 23 de enero de 2018.

El 5 de octubre de 2018, Jovino Martínez Sierra, Director de Obra de las obras de rehabilitación, emitió un informe en el que corroboraba los motivos expresados en el escrito de IZA Obras y



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

berresteko; izan ere, obretan gertatu zen atzerapena kontratistari egotzi ezin zitzaizkion arrazoiengatik gertatu zen. Horrela bada, bidezkotzat jotzen zuen obren exekuzio epea bi hilabete luzatzea.

Era berean, Udal Zerbitzu Publikoek epea luzatzeko onarpena proposatzeko idatzi duten txostena aztertu da.

Horren haritik, aipatzekoa da, Kontratazio Mahaiak bat egin duela txosten horiekin, eta kontratazio organoari proposatu diola aztergai daukagun kontratua luzatzeko. Hartara, exekuzio epea 2018ko abenduaren 14an bukatuko litzateke.

Horiek horrela, alde batetik, arestian adierazitakoa kontuan izanik, erantsitako dokumentazioa aztertu ostean, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legeari Buruzko Testu Bateratuaren 107. eta 234,3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Eta bestetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarraren Osoko Bilkura denez,

Habitat Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **AKORDIO** hauek har ditzala:

Lehenengoa.- Aita Agirre eraikina eraberritzeko obren exekuzio epea bi hilabete luzatzeko onarpena ematea. Horiek horrela, exekuzio epe berria 2018ko abenduaren 14an bukatuko da.

Bigarrena.- Ebazpen hau IZA Obras y Promociones SArri eta Jovino Martínez

Promociones, SA, y considerando que el retraso producido en las obras había sido producido por causas no imputables al contratista, estimaba procedente la ampliación del plazo de ejecución de las obras en dos meses.

Visto el informe de los Servicios Técnicos Municipales proponiendo la aceptación de la ampliación de plazo.

Visto que la Mesa de Contratación hace suyos los informes y propone al órgano de contratación la ampliación del contrato que nos ocupa en un plazo de dos meses, de manera que el nuevo plazo de ejecución finalizaría el día 14 de diciembre del año 2018.

A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de acuerdo con la misma, y de conformidad con lo establecido en los artículos 107 y 234,3 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre.

A la vista de que el órgano de contratación es el Pleno de la Corporación, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

La Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

Primero.- Aprobar la ampliación del plazo de ejecución de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre en dos meses, de tal forma que el nuevo plazo de ejecución finalizará el 14 de diciembre de 2018.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a IZA Obras y Promociones, SA y a



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Sierrari jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran.

Jovino Martínez Sierra, en la forma legalmente establecida.

LAUGARRENA.- AITA AGIRRE ERAIKINA ERABERRITZEKO OBREN KONTRATUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ABIAN JARTZEA.-

CUARTO.- INICIO DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO AITA AGIRRE.-

18:45ean bilerara Talde Sozialistaren Zinegotzi den Nerea Alustiza Alonso andrea bertaratu da.

Siendo las 18 horas y 45 minutos, se incorpora a la sesión la Concejala del grupo Socialista D^a Nerea Alustiza Alonso.

Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu eta Erabaki bihurtu da:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

“2017ko ekainaren 15ean, Udalaren eta IZA Obras y Promociones SA enpresaren artean Aita Agirre eraikina eraberritzeko obrak exekutatzeko kontratua sinatu zen.

“El 15 de junio de 2017 se suscribió entre el Ayuntamiento e IZA Obras y Promociones, SA, el contrato para la ejecución de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre.

2017ko uztailaren 14an horri zegokion zuinketa akta sinatu zen.

En fecha 14 de julio de 2017 se suscribió el acta de replanteo correspondiente.

Kontratuan aurreikusi zen exekuzio epea 14 hilabetekoa zen, hala ere, kontratuan bertan aurreikusten zen epe hori bi astez etetea, 2017ko abuztuan, eta beste bi astez, 2018ko abuztuan; izan ere San Bartolome jaietan Aita Agirre plazan instalatzen diren barraken ondorioz, obrak geldiarazi egin behar ziren epe horretan.

El plazo de ejecución previsto en el contrato es de 14 meses, si bien en el propio contrato se contempla la suspensión del plazo por dos semanas en agosto de 2017 y otras dos semanas en agosto de 2018, ya que con ocasión de las fiestas de San Bartolome y la instalación de barracas en la plaza Aita Agirre, las obras se paralizarían por dicho espacio de tiempo.

Kontratuaren esleipen prezioa 2.393.252,99 €-koa izan zen, BEZ sartu gabe.

El precio de adjudicación del contrato fue de 2.393.252,99 €, IVA excluido.

Obra Zuzendariak, Jovino Martínez Sierrak, txostena aurkeztu du kontratua aldatzeko proposamena egiteko.

Por parte del Dirección de obra, Jovino Martínez Sierra, se presenta informe proponiendo la modificación del contrato.

Hala, Aita Agirre eraikina eraberritzeko obraren Zuzendariak idatzitako txostena aztertu da. Txostenaren arabera, obrak

Visto el informe redactado por el Director de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre, según el cual durante la



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

egiten ari ziren bitartean, eta beharrezko eraisketak egin ondoren, agerian gelditu diren elementu eta obra unitateetan gerora gertatu diren gorabeherak, patologiak edo eraikinean ezkutuan zeuden bizioak antzeman dira, proiektua idatzi zenean aurreikusi ezin zirenak.

realización de las obras y tras la ejecución de las correspondientes demoliciones, que dejaron al descubierto determinados elementos y unidades de obra, se han detectado una serie de circunstancias sobrevenidas, patologías o vicios ocultos en el edificio, no previsibles en el momento de redacción del proyecto.

Hala eraisketak egin ondoren eta obra prozesuak iraun duen bitartean antzeman diren akatsek eta ezkutuko bizioek, labur, honako arlo hauetan eragiten dute:

Las deficiencias y vicios ocultos detectados tras las demoliciones y durante el proceso de la obra, inciden, sucintamente, en los siguientes aspectos:

1.- Teilatua: ezin izan da eraikinean zegoen teila berreskuratu, eta teila zeramiko berria jartzea proposatzen da.

1.- Cubierta: no ha sido posible la recuperación de la teja existente en el edificio, y se propone la colocación de una nueva teja cerámica roja.

2.- Atzeko fatxadako horma sendotzea: horma egoera eskasean dagoela kontuan izanik, sendotzeko jarduerak egin behar dira.

2.- Consolidación del muro de la fachada trasera: habida cuenta del mal estado del muro han de realizarse actuaciones tendentes a su consolidación.

3.- Liburutegiko hormaren igarobideetako egituren jarduerak egitea: beharrezkotzat jotzen da hormigoizko dado batzuk egitea atarrietako zutabeak ainguratzeko. Horretaz gain, fatxadaren baoetan forjatuaren lauza luzatu egin behar da, arkupeko sabaiaren forjatuarekin lotzeko.

3.- Actuaciones estructurales en los pasos del muro de la biblioteca: se considera necesario realizar unos dados de hormigón para el anclaje de los pilares de los pórticos. También la prolongación de la losa del forjado en los huecos de fachada para conectar con el forjado de techo del porche.

4.- Aldaketak transformazio zentroaren instalazioan: konpainia hornitzaileak hasieran emandako datuetan akats bat izan zenez, eta eraikinetik gertuen dagoen hartunea aprobetxatu, eta plazan ahalik eta eragin txikiena izateko, Transformazio Zentroa Aita Agirre plazara aldatzea proposatzen da.

4.- Cambios en la instalación del centro de transformación: debido a un error en los datos iniciales aportados por la compañía suministradora y para aprovechar un punto de acometida más próximo al edificio y que requiere menor impacto en la plaza, se propone el cambio de ubicación del Centro de Transformación a la plaza Aita Agirre.

Arestian adierazitakoaz gain, Udalak barrualdeko banaketan aldaketak egiteko eskatu du, eta kontratistak

Además de lo anterior, el Ayuntamiento ha solicitado modificaciones de la distribución interior y la contratista ha



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

hainbat hobekuntza proposatu ditu (azken hauek kosturik gabe).

propuesto una serie de mejoras (estas últimas sin coste adicional).

Era berean, aldaketen aurrekontua aztertu da, Zuzendariak berak aurkeztu duena, eta guztira, BEZ sartuta, 260.520,08 €-ko zenbatekoa duena.

Visto el presupuesto de las modificaciones presentado por el propio Director, el cual asciende a la cantidad total de 260.520,08 €, IVA incluido.

Halaber, egin behar diren obren ondorioz, obren Zuzendariak beharrezkotzat jotzen du obren exekuzio epea hilabete luzatzea.

Considerando que, como consecuencia de las obras necesarias a realizar, el Director de las obras estima necesaria la ampliación del plazo de ejecución de las obras en un mes.

Horren haritik, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena aztertu da, non kontratuaren aldaketa onartzeko proposamena egiten baita.

Visto el informe de los Servicios Técnicos Municipales proponiendo la aceptación de la modificación del contrato.

Hortaz, Kontratazio Mahaiak bere egin ditu txostenak, eta kontratazio organoari proposatu dio esleipen prezioa 260.520,08 € igo dezala. Hala, aurrekontu honek aurreko aurrekontuarekiko % 9ko aldaketa izango du. Bestalde, exekuzio epea hilabete luzatzeko proposamena egin da.

Visto que la Mesa de Contratación hace suyos los informes y propone al órgano de contratación el incremento de 260.520,08 € sobre el precio de adjudicación, lo cual supone una variación del 9% sobre aquel, y la ampliación del plazo de ejecución en un mes.

Horiek horrela, alde batetik, arestian adierazitakoa kontuan izanik, erantsitako dokumentazioa aztertu ostean, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legeari Buruzko Testu Bateratuaren 107. eta 234,3 artikuluetan ezarritakoaren arabera,

A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de acuerdo con la misma, y de conformidad con lo establecido en los artículos 107 y 234,3 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre.

Eta bestetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarraren Osoko Bilkura denez,

A la vista de que el órgano de contratación es el Pleno de la Corporación, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Habitat Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio ondoko **AKORDIOAK** har ditzala:

La Comisión de Hábitat propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Lehenengoa.- Aita Agirre eraikina eraberritzeko obrak kontratua aldatzeko espedientearen abian jartzea, espedientearen ageri den dokumentazioaren proposatutako baldintzen arabera:

Espedientearen arabera, esleipen prezioa 260.520,08€ (BEZ barne) gehituko da.

Era berean, obrak exekutatzeke epea hilabete luzatuko da.

Bigarrena.- Obrak esleipendun den IZA Obras y Promociones SARI hiru eguneko entzunaldia eskaintzea, eta horretarako, egindako txostena eta aldaketaren proposamena helaraztea, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Hirugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrari kontratuaren aldaketari buruzko espediente hau behin betiko onartzeko eskumena ematea, baldin eta, entzunaldiak dirauen bitartean, kontratistak eragozpenen bat duela adierazten ez badu."

BOSGARRENA.- URRUZUNOKO (4B URRUZUNO 2 ETA 3 EREMUA) PLAN PATZIALAREN 3. ALDAKETAREN TESTU BATERATUA ONARTZEA.- Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu eta Erabaki bihurtu da:

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak, 2018ko uztailaren 19an egindako bileran, behin betiko onartu zuen "Urruzunoko (4B Urruzuno 2 eta 3 eremua) plan partzialaren 3. Aldaketaren" dokumentua, hainbat aldaketa egitekotan. Era berean, honako hau adierazi zuen:

Primero.- Iniciar el expediente de modificación del contrato de las obras de rehabilitación del edificio Aita Agirre, en los términos planteados en la documentación que obra en el expediente:

De conformidad al mismo, el precio de adjudicación se incrementará en 260.520,08€, IVA incluido.

Asimismo, se ampliará el plazo de ejecución de las obras en un mes.

Segundo.- Conceder un período de audiencia, por plazo de tres días, a la empresa adjudicataria de las obras, IZA Obras y Promociones, SA, con traslado del informe emitido y de la propuesta de modificación, a fin de que presente las alegaciones que estime pertinentes.

Tercero.- Delegar en la Junta de Gobierno Local la aprobación definitiva del presente expediente de modificación de contrato, en caso de que no se presentará objeción alguna por parte de la contratista durante el trámite de audiencia."

QUINTO.- APROBACIÓN DEL TEXTO REFUNDIDO DE LA 3ª MODIFICACIÓN DEL PLAN PARCIAL DE URRUZUNO (ÁMBITO 4B URRUZUNO 2 Y 3).- Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión Hábitat:

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 19 de julio de 2018, aprobó definitivamente el documento de "3ª Modificación del plan parcial de Urruzuno (ámbito 4B Urruzuno 2 y 3)", con una serie de modificaciones. Asimismo, se señalaba lo siguiente:



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Plan partzialaren sustatzaileak, gehienez ere, HILABETEKO epean, arestiko aldaketak jasoko dituen testu bateratua aurkeztu beharko du.

El promotor del plan parcial deberá presentar un texto refundido que incorpore las anteriores modificaciones en el plazo máximo de UN MES.

Ez dira iragarkiak argitaratuko, testu bateratua aurkezten ez den bitartean.

No se publicarán los anuncios en tanto en cuando no sea presentado el texto refundido.

Horretaz gain, antolamenduaren planoak aurkeztu beharko ditu formatu editagarrian. Halaber, UTM koordenatuak txertatu beharko ditu.

Además deberá presentar los planos de ordenación en formato editable, incluyendo coordenadas UTM.

Gure Txoko SLk "Urruzunoko (4B Urruzuno 2 eta 3 eremua) plan partzialaren 3. aldaketaren Testu Bateratua" aurkeztu du.

Gure Txoko, SL ha presentado el "Texto Refundido de la 3ª Modificación del plan parcial de Urruzuno (ámbito 4B Urruzuno 2 y 3)".

Era berean, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena aztertu da.

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 96 artikuluetan, eta bidenabar, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22, c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Habitat Batzordeak, aldeko irizpena egin ostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **AKORDIO** hauek har ditzala:

De conformidad con lo establecido en los artículos 95 y 96 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22, c) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Comisión de Hábitat, dictamina favorablemente y eleva a consideración del Pleno municipal los siguientes **ACUERDOS**:

Lehenengoa.- Urruzunoko (4B Urruzuno 2 eta 3 eremua) plan partzialaren 3. aldaketaren Testu Bateratua" onartzea.

Primero.- Aprobar el "Texto Refundido de la 3ª Modificación del plan parcial de Urruzuno (ámbito 4B Urruzuno 2 y 3)".

Bigarrena.- Akordio hau Gure Txoko SLri jakinaraztea, lege ezarrita dagoen eran."

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a Gure Txoko, SL, en la forma legalmente establecida."

SEIGARRENA.- IMH ERAIKINAREN BIGARREN SOLAIRUAN KOKATUTA DAUDEN GELAK ERABERRITZEKO OBRAK INTERES BEREZIKOAK EDO HERRI ONURAKOAK DIRELA AITORTZEA, ERAIKUNTZA

SEXTO.- DECLARAR DE ESPECIAL INTERÉS O UTILIDAD MUNICIPAL LAS OBRAS DE REMODELACIÓN DE LAS AULAS SITUADAS EN LA PLANTA SEGUNDA DEL EDIFICIO DEL IMH, PARA LA BONIFICACIÓN



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO
ZERGAREN HOBARIA EMATEKO.-**

Habitat Batzordearen honako irizpen hau, aho batez onartu eta Erabaki bihurtu da:

“Aitor Muniozguren Larrartek, IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUAREN izenean eta ordezkartzan diharduenak, egin duen eskaera aztertu da. Bertan, Azkue bailara kalea 1 zenbakian kokatuta dagoen Fundazioaren eraikinaren bigarren solairuan exekutatzeko ari diren eraberritze obrak interes berezikoak edo herri onurakotzat jotzeko eskaera egiten du, obra horiei dagokion EIOZen % 95eko hobaria ezartzeko; izan ere, obra horietan gizarte eta hezkuntza arloko inguruabarrak gertatzen dira.

Azkeneko 5 urteetan, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketarako Sailburuordetza, ikasketa kolaboratiboan, erronketan oinarritutako metodologia (ETHAZI proiektua) bultzatzen ari da lanbide heziketarako ikastetxeetan. Metodologia honen funtsezko oinarria ikasketa prozesua ikasgaika baino erronketan garatzea da. Ikuspegi horrek hainbat aldaketa dakartza erronkak aurrera ateratu nahi badira: lantaldea irakasle talde txiki batek eta ikasleek osatzea, lana elkarlanaren ikuspegitik garatzea, ikasketaren oinarria "jakitea" baino "egiten jakitea" dela sustatzea, baita arlo teknikoekin gain, jarrerazko arloak lantzea ere. Lan egiteko modu berri horrek ikastetxea antolatzeko modu berrietara garamatza, eta ahalik eta etekin handiena lortzeko badugu, espazio fisikoak (gelak eta lantegiak) ere aldatu behar dira.

**DEL IMPUESTO SOBRE
CONSTRUCCIONES
INSTALACIONES Y OBRAS.-**

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión Hábitat:

“Vista la solicitud realizada por Aitor Muniozguren Larrarte, actuando en nombre y representación de IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA, en el que se solicita la declaración de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales y educativas, las obras de rehabilitación de la segunda planta del edificio de la Fundación, sito en Azkue bailara kalea, 1, que está ejecutando, de cara a la aplicación de una bonificación del 95% del ICIO correspondiente a las mismas.

Dichas obras consisten en habilitar las aulas y talleres para poder aplicar la metodología del aprendizaje colaborativo basada en retos (proyecto ETHAZI). De hecho, en los últimos 5 años, La Viceconsejería de Formación Profesional del Gobierno Vasco está impulsando el aprendizaje colaborativo, en los centros educativos de Formación Profesional, basándose el mismo en desarrollar el proceso de aprendizaje mediante retos, más que por asignaturas. Ese enfoque supone realizar una serie de cambios: crear grupos de trabajo reducidos formados por profesores y estudiantes, desarrollar el trabajo con un enfoque colaborativo, promover que la base del aprendizaje sea “el saber hacer”, por encima del “saber”, y también, trabajar los aspectos actitudinales, además de los aspectos técnicos. Esta nueva forma de trabajar acarrea nuevas formas de organizar los centros educativos, ya que para lograr el mejor resultado posible, se deben modificar sus espacios físicos (aulas y talleres).



Esan bezala, Lanbide Heziketarako Sailburuordetza ETHAZI proiektuari bultzada ematen ari da, hori dela eta, gelak eraberritzeko obra hauek proiektu honen baitan sartzen dira.

IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA irakaskuntzako Fundazio pribatuen erregistroan inskribatuta dagoen fundazio bat da. Fundazioaren gizarte funtsa honakoa da: % 73,35 publikoa, eta % 26,65, pribatua. Gizarte Funtzaren osaera, bereziki, publikoa da. Hori dela eta Fundazioa kontratazio publikoari dagokion araudiaren pean dago:

Alde publikoa honela osatzen da: Eusko Jaurlaritza (%51,24), Gipuzkoako Foru Aldundia (%15,72) eta Elgoibarko Udala (% 6,39).

Beste alde batetik, Makina Erremintaren Institutua helburu koordinatuak eta interes erkidea dituzten bi erakunde juridiko desberdinek bideratutako proiektu juridiko bakarra da. Ikastetxe publikoaren xedea da Hasierako Prestakuntzako Heziketa Zikloak ematea; Fundazioak, berriz, betetzen duen gizarte xedearekin bat datozen gainerako jarduerak eskaintzen ditu, hau da, Lanbide Heziketa. Hasierako Prestakuntzari dagokion jarduera herri titularitatekoa da eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapean dago.

Hala, 1997ko azaroaren 19an, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Makina Erremintaren arloko prestakuntza teknikorako fundazioaren artean. Hitzarmen horretan zehazten da, bestek beste, Fundazioak eraikitako eraikina, instalazioak eta ekipamenduen doako erabilera mugagabea lagatzen diola

El IMH participa desde el inicio en el proyecto ETHAZI, por lo que las presentes obras de reforma de las aulas se sitúan dentro de este proyecto.

IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA es una fundación inscrita en el Registro de Fundaciones docentes privadas, cuya composición del Fondo Social es el siguiente: 73,35% público y 26,65% privado. Dado que la composición de su Fondo Social es mayoritariamente pública, la Fundación se encuentra sujeta a la normativa de contratación pública.

La parte pública está constituida por el Gobierno Vasco (51,24%), Diputación Foral de Gipuzkoa (15,72%) y Ayuntamiento de Elgoibar (6,39%).

Por otro lado, el Instituto de Máquina-Herramienta es un proyecto único desarrollado por dos entidades jurídicas diferentes con objetivos coordinados y con un interés común. El centro público se centra en la impartición de Ciclos Formativos de Formación Inicial, y la Fundación, en el resto de actividades afines a su objeto social que atiende el desarrollo de la Formación Profesional. La actividad correspondiente a la Formación Inicial es de titularidad pública y depende del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

El 19 de noviembre de 1997 se suscribió un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la fundación para la formación técnica en Máquina-Herramienta. En el mismo se señala, entre otros, que la Fundación cede el uso de forma gratuita e indefinida del inmueble edificado, instalaciones y equipamientos al



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, honek erabil dezan.

Departamento de Educación, Universidades e Investigación para su utilización.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da, aitorten hori EIOZi dagokion %95eko hobaria ematearren eman behar dela. Hobari hori jasota dago indarrean dagoen ordenantza fiskalean, eta hori Osoko Bilkurak onartu behar du, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6.3. artikuluan eta 15/1989 Foru Arauaren 5. artikuluan zerga horri buruz ezartzen denaren arabera.

Teniendo en cuenta que la aprobación de dicha declaración sería en orden a la aplicación de la bonificación del 95% del ICIO, reflejada en la ordenanza fiscal vigente, y que la misma, en aplicación de la legislación vigente, debe ser aprobada por el Pleno, de conformidad con lo establecido en el artículo 6.3 de la Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y en el artículo 5 de la Norma Foral 15/1989 sobre dicho impuesto.

Ildo horretatik, kontuan izan behar da arestiko obren xedea dela ikastetxea Eusko Jaurlaritza Lanbide Heziketako ikastetxeetan aplikatzen ari den metodologia berri horretara egokitzeko premiei erantzutea.

Teniendo en cuenta que las citadas obras responden a la necesidad de adaptar el centro docente a la nueva metodología que está aplicando el Gobierno Vasco en los centros educativos de Formación Profesional.

Era berean, aipatzekoa da obrak exekutatzen ari diren eraikinean, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardurapekoak diren Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen direla.

Teniendo en cuenta que en el edificio donde se están ejecutando las obras se imparten precisamente los ciclos de Formación Profesional que dependen del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Eta halaber, obra horien gizarte eta herri interesa kontuan izan behar dira; izan ere, horien xedea da hezkuntza arloko jarduera bideratzea.

Teniendo en cuenta el interés social y público de las citadas obras, dado que se encuentran claramente orientadas a la actividad educativa.

Horiek horrela, Batzorde honek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio honako **ERABAKIAK** har ditzala:

Esta Comisión propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Lehenengoa.- Azkue bailara kalea 1 zenbakian kokatuta dagoen IMHren eraikinaren bigarren solairua eraberritzeko obrak interes berezikotzat edo herri onurakotzat jotzea, gizarte eta heziketa arloko inguruabarrak gertatzen direlako

Primero.- Declarar las obras de rehabilitación de la segunda planta del edificio del IMH, sito en Azkue bailara kalea, 1, como de especial interés o utilidad municipal, por concurrir circunstancias de carácter social y educativo.



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bigarrena.- EIOZi dagokion %95ko hobaria, indarrean dagoen Ordenantza Fiskalean jasota dagoena, onartzea.

Hirugarrena.- Akordio hau Kontu-hartzaitza Sailari helaraztea, obra horiei EIOZi dagokion %95ko hobaria ezar diezaien.”

ZAZPIGARRENA.- 2019KO
ORDENANTZA FISKALEN
HASIERAKO ONARPENA.-

Idazkari jaunak Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau irakurri du:

“Eskaintzen diren zerbitzuak eta burutzen diren jarduerak finantzatzeko, eta ahal den heinean, horien kalitateak hobetzeko asmotan, horiei dagozkien Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena ikusirik, Batzorde honek Udal Batzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio horietako bakoitza onar dezala, adierazitako baldintzetan; eta hori guztiori, 2019ko ekitaldiaren urtarilen batetik aurrerako ondorioekin.

Orokorrean KPlaren igoera planteatzen da (%2,2). Salbuespenak daude, adibidez zaborren tasan. Azken honetan, Mankomunitateak %1,89an igoera proposatu duenez, igoera berdina egitea da proposamena.

Aipaturiko proposamenak ondorengoak dira:

A) DERRIGORREZKO ZERGAK

1) ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO
ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO
FUNTSEZKO ELEMENTUAK
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA
FISKALA

Segundo.- Aprobar la bonificación del 95% del ICIO expresada en la Ordenanza Fiscal vigente.

Tercero.- Remitir el presente acuerdo al Departamento de Intervención, al objeto de aplicar la bonificación del 95% del ICIO a las citadas obras.”

SÉPTIMO.- APROBACIÓN INICIAL DE
LAS ORDENANZAS FISCALES 2019.-

Por parte del Sr. Secretario se procede a dar lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Vista la propuesta de modificación de las respectivas Ordenanzas Fiscales y con objeto de financiar los servicios que se prestan y las actividades públicas que se desarrollan y en la correspondiente medida, mejorar la calidad de los mismos, ésta Comisión propone al Pleno de la Corporación la aprobación de cada una de ellas en los términos que se reflejan, ello con efectos del primero de enero del ejercicio 2019.

En general, se plantea una subida del IPC (2,2 %). Existen excepciones, por ejemplo, en la tasa de basuras. En esta última tasa, la Mancomunidad propone subir un 1,89 %, y por ello, se propone realizar el mismo incremento.

Las citadas propuestas son como sigue:

A) IMPUESTOS OBLIGATORIOS

1) ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DE LOS ELEMENTOS
ESENCIALES PARA DETERMINAR
LAS CUOTAS DEL IMPUESTO
SOBRE BIENES INMUEBLES



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

OHZ: HIRITARRA

a) **Hiri izaerako ondasunak:** Karga tasa % 0,233an finkatuko da

b) **Industria lurzoruan kokatutako hiri izaerako ondasunak:** Karga tasa %0,48an finkatuko da

OHZ: LANDALURRA

a) Landalur izaerako Ondasunak: karga mota % 1,1ean finkatu da

2) UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Koefiziente bakarra 2,2

Kaleen biderkaria: 1; izan ere, kale guztiak berdintzat hartzen dira.

3) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**Potentzia eta ibilgailu mota****A) Turismoak:**

-9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak 42,10
-9tik 11.99 zaldi fiskalera bitartekoak 84,15
-12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak 140,30

-14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak 196,50

-16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak 252,70
-20 zaldi fiskaletik gorakoak 308,90

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak 190,70
21etik 50 plazatara bitartekoak 271,60
50 plaza baino gehiagokoak 339,50

C) Kamioiak:

-1.000 kg baino gutxiagoko karga baliag. 96,75
-1.000 kg-tik 2.999ra arteko karga baliag. 190,70
-2.999 kg-tik 9.999ra arteko karga baliag. 271,60
-9.999 kg baino gehiagoko karga baliag. 339,50

D) Traktoreak:

-16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak 40,40
-16 zaldi fiskaletik 25era artekoak 66,65
-25 zaldi fiskal baino gehiagokoak 190,70

I.B.I.: URBANA

a) **Bienes urbanos:** El tipo de gravamen queda fijado en el 0,233%.

b) **Bienes urbanos en suelo industrial:** el tipo de gravamen queda fijado en el 0,48%.

I.B.I.: RUSTICA

a) Bienes Rústicos: el tipo de gravamen queda fijado en el 1,1%.

2) ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE DETERMINADAS FACULTADES PARA LA EXACCIÓN DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

Coefficiente único: 2,2

Coefficiente de situación: 1, considerando todas las calles por igual.

3) ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA**Potencia y clase de vehículo****A) Turismos:**

-De menos de 9 caballos fiscales 42,10
-De 9 hasta 11.99 c. fiscales 84,15
-De 12 hasta 13,99 c. fiscales 140,30

-De 14 hasta 15,99 c. fiscales 196,50

-De 16 hasta 19,99 c. fiscales 252,70
-De 20 c. fiscales en adelante 308,90

B) Autobuses:

De menos de 21 plazas 190,70
De 21 a 50 plazas 271,60
De más de 50 plazas 339,50

C) Camiones:

-De menos de 1.000 kg. de carga útil 96,75
-De 1.000 a 2.999 kg. de carga útil 190,70
-De más de 2.999 a 9.999 kg. de carga útil 271,60
-De más de 9.999 kg. de carga útil 339,50

D) Tractores:

-De menos de 16 caballos fiscales 40,40
-De 16 a 25 caballos fiscales 66,65
-De más de 25 caballos fiscales 190,70



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek herrestan eramandako atoiak eta erdiatoiak
-1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg. baino gehiagoko karga baliagarria dutenak 40,40
-1.000 kg-tik 2.999 kg-ra arteko karga baliag .. 63,55
-2.999 kg. baino gehiagoko karga baliag..... 190,70

F) Bestelako ibilgailuak:

-Ziklomotores 10,40
-Motozikletak:
*125 c³-ra bitartekoak..... 10,40
*125 c³-tik 250era bitartekoak 17,65
*250 c³-tik 500era bitartekoak 35,35
*500 c³-tik 1.000era bitartekoak 70,70
*1.000 c³ baino gehiagokoak..... 141,45

Gehitzea:

001 - GUTXI KUTSATZEN DUTEN IBILGAILUENTZAKO HOBARIA %75

Energia elektrikoa eta gasolina edota gasolioa konbinatuz, nahiz elektrizitatea eta gas naturala konbinatuz (PGL eta GNK) dabiltzan ibilgailu hibridoak, eta gas naturalarekin (PGL eta GNK) dabiltzan ibilgailuak.

B) BORONDATEZKO ZERGAK

4) ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Karga tasa: Obrarako materialaren aurrekontuari dagokion %5.

Denda txiki, ostalaritza eta sortutako zerbitzu berrientzako zerga % 2,5ekoa izango da.

Jarduera baten titularitate aldaketa dela eta, egin beharreko eraberritze obra merkataritzako jarduerarako bada, %2,5ekoa izango da.

Babes ofizialeko etxebizitzentzako karga tasa: %2

5) HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

E) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica:

-De menos de 1.000 kg y más 750 kg. de carga útil 40,40
-De 1.000 a 2.999 kg. de carga útil..... 63,55
-De más de 2.999 kg. de carga útil..... 190,70

F) Otros vehículos:

-Ciclomotores 10,40
-Motocicletas:
*hasta 125 c.c..... 10,40
*De más de 125 hasta 250 c.c..... 17,65
*De más de 250 hasta 500 c.c..... 35,35
*De más de 500 hasta 1.000 c.c..... 70,70
*De más de 1.000 c.c. 141,45

Añadir:

001 - BONIFICACIÓN VEHÍCULOS DE CONTAMINACIÓN REDUCIDA 75%

Vehículos híbridos que combinen energía eléctrica y/o gasoil, vehículos híbridos electricidad y gas natural (GLP y GNC) y vehículos de gas natural (GLP y GNC).

B) IMPUESTOS VOLUNTARIOS

4) ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

Tipo de gravamen: 5% sobre el presupuesto de ejecución material de obra.

Tipo de gravamen para pequeños comercios, hostelería y servicios de nueva creación 2,5%

Si con motivo de un cambio de titularidad de una actividad, se realiza una obra de reforma correspondiente a una actividad comercial, será del 2,5%.

Tipo de gravamen para vivienda de protección oficial: 2%

5) ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

1. EHUNEKOEN TAULA.

<u>ALDIA</u>	<u>URTEKO EHUNEOA</u>
a) 1 urtetik 5 urtera artekoa.....	%3,00
b) 10 urtera artekoa.....	%2,80
c) 15 urtera artekoa.....	%2,70
d) 20 urtera artekoa.....	%2,60

1.1 TARIFA.

Karga tasa % 7,26

Kudeaketaren gutxieneko kuota: 10 €

Ordenantza zuzentzea, eta horretarako, ondoren, testuan letra beltzez eta letra etzanez ageri dena kentzea.

05.06.- OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua

001 - HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA. EHUNEKOEN TAULA

05.07.- TRIBUTU KUOTA

11. Artikulua

Zerga honen kuota, oinarri ezargariari Eranskinean adierazten den karga tipoa aplikatzearen emaitza izango da.

C) TASAK

6) UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

A epigrafea: Ibilgailuak espaloietan zehar barrualdera sartzea eta aparkalekua erreserbatzea

1 Tarifa.- Ibi iraunkorrek:

1. CUADRO DE PORCENTAJES.

<u>PERIODO</u>	<u>PORCENTAJE ANUAL</u>
a) De 1 a 5 años.....	3,00%
b) Hasta 10 años.....	2,80%
c) Hasta 15 años.....	2,70%
d) Hasta 20 años.....	2,60%

1.1. TARIFA

Tipo de gravamen 7,26%

Cuota mínima de gestión: 10€

Corregir la ordenanza, eliminando del texto lo que a continuación figura en subrayado y en letra cursiva.

05.06.- BASE IMPONIBLE

Artículo 8

001 - IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

05.07.- CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 11.

La cuota de este Impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo

C) TASAS

6) ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL

Epígrafe A: Entrada de vehículos a través de las aceras y reserva de aparcamiento

Tarifa 1.- Con vado permanente:



OSOKO BILKURA
2018/10/25
9 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Garajeak:

- *Gehienez, 2 ibilgailurentzako kapazitatea: 37,35
- *3 eta 5 ibilgailu arteko kapazitatea: 97,70
- *6 eta 10 ibilgailu arteko kapazitatea: 192,85
- *11 eta 30 ibilgailu arteko kapazitatea: 289,45
- *31 eta 60 ibilgailu arteko kapazitatea: 382,50
- *60 ibilgailutik gorako kapazitatea:..... 499,35

2 Tarifa.- Ibi iraunkorrik gabe:

Garajeak:

